


# eingute?

DOSSIER INFORMATIBOA



# Kanpainaren aurkezpena

Eingule? kanpaina urriaren 3an hasiko da, Bermeoko Euskarari indarra eta prestigioa emateko helburuarekin.

Kanpaina hau 2018-2022 urteetako Euskararen Plan Estrategikoarekin lerrokatuta dago, Bermeoko euskarari indarra eta prestigioa emateko, eta sustraiak eta identitatea balioan jartzeko asmoarekin bat etorritik.

Bermeotarraren aberastasunaz eta balioaz jabeaztea da kanpaina honen helburua, norberaren euskararekiko harrotasuna sentitzea, zentzu zabalean ulertuta. Ez da soilik gure hizkera prestigiatzea, Bermeoko identitatea eta kultura zabaltzea eta transmisioa indartzea da.

Erabilerarako motibazioa sustatu nahi da, herritarrei nortasuna ematen dion hizkerak eguneroko bizitzarako duen baliagarritasuna agerian utziz. Lanketa hau jolasaren bidez egin nahi da, bermeotarrez jolasteko erronkari heltzeko gonbidapena egin gura zaie herritarrei.

## Zortzi aste, zortzi lehiaketa

Kanpaina urriaren 3an hasiko da eta abenduaren 3ra arte luzatuko da eta hainbat elementuk ezberdinek osatuko dute:

**Banaka jolasteko lehiaketak.** Urriaren 3tik aurrera, astero lehiaketa berri bat kaleratuko da eta herritarrek astebete edukiko dute lehiaketa betetzeko. Lehiaketa bakoitza [eingule.bermeo-euskaraz.eus](http://eingule.bermeo-euskaraz.eus) webgunearen bidez, sare sozialen bidez eta WhatsApp bidez zabalduko da eta herritarrek jasotzen duten estekaren bidez izango dute lehiaketa betetzeko aukera. Sari bat emango da astero, puntu gehien lortu dituenari!

Lehiaketa berria astelehenero argitaratuko da eta igandea izango da lehiaketa betetzeko epemuga.

**Juan Lebatz web seriea.** Lehiaketari testuingurua emateko, web serie bat prestatu da. Protagonistak Juan Lebatz du izena eta bere bizipenak jarraitzera animatuko gaitu Bermeoko hizkeraz blaitutako serie baten bidez. Gainera, Bermeoko berbak aitzaki hartuta, kale elkarrizketak egingo dira herritarren partaidetza sustatzeko.

**Lehiaketa herrikoia.** Kanpainari amaiera emateko, lehiaketa herrikoia antolatuko da Euskararen Egunean eta herritar oro gonbidatuko da bertan parte hartzera. Parte hartzaileek banaka zein taldeka jolasteko aukera izango dute eta irabazleek saria edukiko dute.

## **Ikastetxeetako lanketa**

Kanpaina geletara eraman nahi izan da eta horretarako, herrikotokiko lau ikastetxeei lanketa berezi bat proposatu zaie. Geletan zortzi astetan landuko dute. Horretarako, zortzi bloke zehaztu dira, eduki zehatzarekin eta geletan egiteko lehiaketekin: Berbak eta esaerak; Euskara; Kultura eta sortzaileak; Toponimia, geografia eta natura; Eraikinak eta eskulturak; Kirola; Arrantza eta itsasoa; eta ohiturak eta sinesmenak.

Horretarako, irakasleek irakasleen txoko bat edukiko dute [eingule.bermeo-euskaraz.eus](http://eingule.bermeo-euskaraz.eus) webgunean, bakoitzak modu autonomoan egingo duen lanketa gidatzeko eta errazteko.

Ikastetxeentzat ere lehiaketa berezi bat antolatuko da Euskararen Egunean. Egunean bertan sortuko diren taldeen arteko aurrez aurreko lehiaketa izango da eta lortutako puntuaketaren arabera, hiru sari egongo dira.

## **Tokiko eragileak aktibatzen**

Kanpainaren helburu zabalarekin bat etorriz, tokiko eragileekin elkarlana sustatu da hasieratik. Kanpainan zehar banatuko diren sari guztien atzetik tokiko merkatari, ostalariak zein negozioak daude eta haiek izango dira kanpainaren baitan ateratzen diren saridunak saritzeko arduradunak.

Lankidetzari esker, sari ugari egongo dira, Bermeoko produktu eta zerbitzuekin eta erosketa-txartelekin osatuta. Ikastetxeetan parte hartuko duten gazte guztien partaidetza sarituko da, eta finalean puntu gehien lortzen dituzten taldeentzako kirol arloko sariak ere egongo dira.

# Kanpaina hainbat kanal bidez jarraitzeko aukera

Dagoeneko publikatuta dago eingule.bermeo-euskaraz.eus webgunea, eta bertan aurkituko dituzu kanpainaren nondik norako guztiak.

Sare sozialetan ere aurkituko gaituzu! Instagram eta Twitterren @eingule\_ profilak jarraitu ditzakezu; eta Facebooken @euskerasaila.bermeon kontua. Horrez gain, Udalaren sare sozialen, Euskara Sailaren YouTube kontuaren bidez eta WhatsApp bidez bideo guztiak zabalduko dira.

Kanpainaren lantzamenduarekin batera zozketa bat bideratuko dugu Instagram bidez. Beraz, hasieratik adi egotera gonbidatzen zaitugu!



@eingule\_



@eingule\_



@euskerasaila.bermeo



Euskera Saila